



Ebazpena, Ikaskuntza eta Berrikuntza zuzendariarena. Honen bidez Diseinuko Graduko Goi Mailako Arte Irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten da, 2026 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko beharrezko argibideak ematen dira eta 2026-2027 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen da.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 46.2 artikuluan xedatzen du graduko goi-mailako arte-irakaskuntzen edukiaren definizioa eta horien ebaluazioa Espainiako goi-mailako hezkuntzaren antolamenduaren testuinguruan egingo dela, Europako esparruan eta Arte Irakaskuntzen Goi Kontseiluaren eta, hala badagokio, Unibertsitate Kontseiluaren parte-hartzearekin.

Sartzeko baldintzei dagokienez, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 57.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, batxiler-titulua izatea edo 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana eskatuko da, bai eta proba espezifikoko gaintzea ere. Proba horien bidez baloratuko dira, batetik, ikasleen heldutasuna, ezagutzak eta ikasteko gaitasunak, eta, bestetik, haien hezkuntza-arloko probetxua eta aprobetxamendua.

1/2024 Legeak, ekainaren 7koa, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetasunak ezartzen dituenak, 6. artikuluan goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen du eta abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren 54., 55., 56. eta 57. artikulua ezabatzen ditu. Dena den, lege berri honen 1. xedapen iragankorrek xedatzen duenez, irakaskuntzen antolamenduari buruzko erregelamendu-garapena egiten ez den bitartean, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, eta, beraz, deialdi honetarako aipatutako 57.2 artikulua aplikagarria izaten jarraituko du.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen xedea da Diseinuko graduko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko urtero egiten den probarako deialdia egitea eta hura arautzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere, 2026-2027 ikasturterako.

Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak

1. Ikasketa horietara sartzeko probaren helburua irakaskuntza horiek aprobetxamenduz egiteko behar diren heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratzea da.
2. Proba gaintzeak aukera ematen du ikasketa horiek irakasten dituen estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere, ikastetxe horietan plaza libreak baldin badaude.
3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

Hirugarrena.- Ikasleek proba egiteko bete beharreko betekizunak.





Diseinuko Graduko Arte Irakaskuntzetarako sarbide-proba espezifikoa egin ahal izango du matrikulazio-aldian ekainaren 7ko 1/2024 Legearen 7.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen ikasleak. Lege horren bidez, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dira eta arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetzak ezartzen dira. Beraz, matrikulazio-aldian, izangaiek batxiler-titulua izan beharko dute, edo goi-mailako arte-ikasketen titulu bat, unibertsitate-titulu bat edo goi-mailako teknikariaren titulu bat, edo titulu horien baliokidetzat edo homologatutzat jotzen den titulu bat, edo 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu beharko dute.

Laugarrena.- Berriazko proba egiteko salbuespenak

Maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuaren 5.7 artikulua araber, Arte Plastikoetako eta Diseinuko graduko goi-mailako teknikari-titulua dutenek ez dute berriazko sarbide-probarik egin beharko.

Bosgarrena.- 2026ko proba egiteko izena ematea: prezio publikoak, ikastetxea eta epeak.

1. Izena emateko epea:

Ohiko deialdia: 2026ko maiatzaren 1etik maiatzaren 15eko eguerdiko 13:00ak arte.

2.- Izena emateko prozedura:

Izen ematea on line egingo da **Ikasgunea** bidez.

3. Agiriak nora eramán:

*EASD I D arte AGDE ikastetxera
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)
Vitoria-Gasteiz
Tel.:945-123395; info@idarte.eus*

4. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzen duenak xedatzen duenaren arabera, deialdian parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu beharko dituzte, prezio publikoari dagozkionak, sarbide-proba gisa.

5. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, eskabidea betetzeak adierazten du baimena ematen dela eskabidean jasotako datuak tratamendu-jarduera batean sartzeko; Hezkuntza Saila da tratamendu jarduera horren arduraduna. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak, aipatutako legean aurreikusitakoak, Hezkuntza Saileko Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzan balia daitezke.

Seigarrena. – Onarpen-prozesuan izena ematea



Diseinuko graduako goi-mailako arte-irakaskuntzetarako berariazko sarbide-proban izena ematea eta EAEko ikastetxeetan plaza eskatzea bi prozesu desberdin eta independente dira.

Berariazko sarbide-probarako izen-ematearekin batera, hautagaiak onarpena (plaza) eskatu beharko du bere intereskoa den ikastetxean, **Ikasgunea** komunikazio-atarian. Izangai bat, titulazioa dela-eta, berariazko sarbide-proba egitetik salbuetsita badago, onarpen-prozesuan izena emateko eskabidea formalizatu beharko du, eta bertan adierazi beharko du zer ikasketa egin nahi dituen eta zein ikastetxetan, lehentasun-hurrenkeraren arabera.

Zazpigarrena.- Proba egitea.

1. Proba egiteko eguna.

2026ko maiatzaren 23a, goizeko 9:00etan.

2. Proba egiteko tokia:

*EASD I D arte AGDE ikastetxea. Vitoria-Gasteiz
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)*

3. Proba euskaraz edo gazteleraz egin ahalko da. Ikasleak izena emateko eskabidean adieraziko du zer hizkuntzatan egin nahi duen.

4. Proba egiteko esparrura sartzen den ikasleak bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu beharko du (NAN, pasaporte, bizileku-baimena ...), eta proba egiteko beharrezkoak diren materialak eraman beharko ditu.

Zortzigarrena.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako izangaien aukera berak izan ditzaten. Eskabide-orrian, egokitzapenak adierazteko dagoen atalean, eskatu nahi duten egokitzapenaren azalpen osoa idatzi ezin badute, erantsitako orri batean jasoko dute.

Bederatzigarrena.- Probaren edukia eta balorazioa.

Sarbide-proba honek lau ariketa izango ditu, eta aurreneko proba biak bi zatitan banatuko dira:

Lehenengo ariketa. Idatzizko ariketa (denbora: ordubete; balioa: 2,5 puntu)

A zatia: diseinuari edo/eta arteari buruzko idazki labur batzuk emango dira, izangaiek haiei buruzko iruzkin laburrak egin ditzaten (puntu bat).

B zatia: ikusizko kultura, kultura-kontsumoa, hezkuntza edo/eta diseinuarekin zerikusia duen edo duten gai bat edo batzuk jarriko dira, izangaiek 10 lerrotan iruzkindu eta argudia ditzaten (1,5 puntu).

Ebaluazio-irizpideak:

- Maila narratibo-deskribatzailea (% 40).
- Kontzeptualizatzeko, argudiatzeko eta laburtzeko gaitasuna (% 40).
- Idazmena (% 20).

**Bigarren ariketa. Espazio-ikuskereta eta -eraikuntza (denbora: ordubete; balioa: 2,5 puntu)**

A zatia:

Test erako proba, espazio-eraikuntzari, garapenei, hedapenei, bolumetriei eta ikuspegi buruzkoa (1,5 puntu).

B zatia: Marrazketa teknikoko proba (puntu bat).

Ebaluazio-irizpideak:

- Espazio-ikuskereta (% 40).
- Definizioaren ulermena eta eraikuntza formala (% 40).
- Aurkezpena, ordena, garbitasuna eta errotulazioa (% 20).

Hirugarren ariketa. Errepresentazioa (denbora: ordubete eta 15 min; balioa: 2,5 puntu)

Objektu eta bolumen jakin batzuk emanda, hautagaiek konposizio espazial bat sortuko dute. Helburua da jatorrizko konposizioa ezagutzen ez duen norbait gai izatea errepresentaziotik abiatuta hura birsortzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- Objektuen konposizioa, ordena, egitura eta kokapena (% 30).
- Espazio-ikuskereta eta formaren ulermena (% 30).
- Aukeratutako errepresentazio deskribatzailearen koherentzia (% 20).
- Aurkezpena eta garbitasuna (% 20).

Laugarren ariketa. Erronka sortzaile-subjektiboa (denbora: ordubete eta 15 min; balioa: 2,5 puntu)

Emandako material batetik abiatuta (testua, bideoa, musika), elementu batzuk eduki beharko dituen sormen-erronka bat proposatzen da. Elementu horiek ere eman egingo dira.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sormena, kontzeptualizatzeko gaitasuna, konposizio sintetiko eta koherenteen barruan sartuta dauden esanahiak sortzeko gaitasun sinbolikoa (% 40).
- Ikusizko informazioaren konposizioa, ordena eta hierarkia (% 40).
- Egikera eta akaberak (% 20).

Hamargarrena.- Probaren kalifikazioa.



Kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta batetik hamarrerako eskala erabiliko da horretarako, bi hamartarrekin. Bost edo gehiagoko kalifikazioa beharko da ariketa gainditzeko.

Hamaikagarrena.- Proba ebaluatzeke epaimahaia.

1. Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du proba ebaluatzeke epaimahaia, eta epaimahaiburua eta gutxienez lau epaimahaikide izango ditu. Epaimahaikideak graduko goi-mailako irakaskuntzetako irakasleak izango dira eta esparruaren berriazko ezagutzak izango dituzte.
2. Epaimahaiak idazkari bat izendatuko du epaimahaikideen artean, eta horrek ebaluazio-akta egingo du. Bertan, sarbide-probako ariketaren kalifikazioa jasoko da.

Hamabigarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea.

1. Behin-behineko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2026ko ekainaren 3an, goizeko 11:00etan.
2. Ikasleak behin-behineko kalifikazioak ateratzen diren egunetik ekainaren 5eko goizeko 11:00ak arte egin ahal izango du proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I D arte AGDE ikastetxeko idazkaritzak emango duen eredia erabiliz edo info@idarte.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.
3. Behin betiko kalifikazioak. EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2026ko ekainaren 5ean, 13:00etan.
4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamahirugarrena.- Probaren ziurtagiria.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria emateko eskatu ahal izango du EASD I D arte AGDE ikastetxean.

Hamalagarrena.- Ikasleak onartzea.

1. Ikastetxe publikoak eskaintzeko dituen plazak aztertu ondoren, jarraian adierazten diren ehunekoak erreserbatuko ditu ikasketa hauek egitera sartzeko dauden bide bakoitzerako:

- a) Arte Plastiko eta Diseinuko graduko goi-mailako titulua edo baliokidea dutelako zuzenean sartzeko diren ikasleentzat plazak % 15 erreserbatuko dira.
- b) Batxiler-titularen edo baliokideren baten bitartez sartzeko diren eta berriazko proba gainditzen duten ikasleentzat plazak % 79 erreserbatuko dira.
- c) Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten ikasleentzat plazak % 3 erreserbatuko dira, betiere, sartzeko ezarrita dauden eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, desgaitasuna duten



ikasleek desgaitasun-mailaren kalifikazioa eta aitortpena adierazten dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

d) Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, plazen % 3 gordeko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei, betiere, dagozkien eskakizun akademikoak betetzen badituzte eta berariazko proba gainditzen badute

2.- c) eta d) ataletan zehazten diren erreserba-kupoetan bete gabeko tokiak b) ataleko erreserba-kupora gehituko dira. Halaber, b) atalean zehazten den erreserba-kupoan bete gabeko plazak a) ataleko erreserba-kupora gehituko dira, eta alderantziz.

3. Honakoa izango da ikasleen lehentasun-hurrenkera, sartzeko moduaren arabera:

a) Zuzeneko sarbidea salbuespenez:

Ikasle horiek Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluaren edo baliokidetzat jotzen den tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira

b) Berariazko probaren bidez sartzen diren ikasleak:

Ikasle horiek berariazko sarbide-proban lortutako kalifikazioaren arabera ordenatuko dira. Berariazko proban kalifikazio bera duten ikasleek proba hori egin ahal izateko alegatutako tituluaren edo probaren notaren arabera ordenatuko dira.

4. Berariazko proba Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten eskatzaileek lehentasuna izango dute gainerako eskaera guztien aurretik.

Hamabosgarrena.- Ezohiko proba.

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten eskoletako batean plaza hutsik balego, berariazko sarbide-probak egingo dira ekainean, eta proba horretarako ebazpen honetan finkatutako antolaketa, garapena, ebaluazioa, eta ikasleak onartzeko prozedura mantenduko dira.

Hamaseigarrena.- Ezohiko probaren egutegia.

1. Izena emateko epea:

Ez ohiko deialdia: 2026ko ekainaren 11tik ekainaren 18ko 13:00ak arte.

2. Izena emateko prozedura:

Izen ematea online egingo da **Ikasgunean**.

3. Agiriak nora eraman:

*EASD I D arte AGDE ikastetxea. Vitoria-Gasteiz
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)
Tel.:945-123395; info@idarte.eus*

4. Ezohiko proba egiteko eguna:

2026ko ekainaren 25ean goizeko 9:00etan.

5. Proba egiteko tokia:



*EASD I D arte AGDE ikastetxea, Vitoria-Gasteiz
Betoñuko atea 23 (Betoñuko komentu zaharra)*

6.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak egitea:

- a) Behin-behineko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2026ko uztailaren 1ean, 11:00etan.
- b) Ikasleak behin-behineko kalifikazioak ateratzen diren egunetik uztailaren 3ko 11:00ak arte egin ahal izango du proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa. Erreklamazio hori epaimahaiburuari egingo zaio, EASD I D arte AGDE ikastetxeko idazkaritzak emango duen eredia erabiliz edo info@idarte.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.
- c) Behin betiko kalifikazioak EASD I D arte AGDE ikastetxearen webgunean argitaratuko dira 2026ko uztailaren 7an, 13:00etan.
- d) Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazio hori argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan,

Aitor Uriondo Usandizaga

IKASKUNTZA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARIA